

EHUN URTEAN BE AHAZTU EZIN IZAN DAN GALERNA

“Ehun urtean be ahaztu ezin izan dan galerna” titulatzan eban atzoko periodiko batek gaur ehun urte izan zan galernaren gainean idatzi eban artikulua.

Galernak gure kostaldeko fenomeno ezagunak eta tipikoak dira, denok dakigun modura, gehienetan udan sortzen dira, haizearen norabidea eta abiadura nabarmen aldatuz, tenperatura jaitsieragaz batera eta hego haize goxoko egun eguzkitsu eta beroetan azaltzen dira.

Diñoenez, galerna mota edo klase bi dagoz:

1. Galerna tipikoak: oso arriskutsuak bapatean agertzen direlako, batez be uztailan eta abuztuan eta kostaldetik hurbil (20 miliara gehienez).
2. Galerna frontalak: oso indartsuak afontuagaz batera datozelako, ekaitzak eta euri zaparrada mardulak sortuz, uztaila eta abuztuan batez be eta itsaso zabalean bebai (50 miliara edo gehiagora).

1912 ko galerna bigarren mota honetakoa izan zan, gainera orain urte batzuk hain ezaguna egin zan ziklogenesi lehergarria izan zan beragaz batera.

Historian zehar zoritzarrezko galerna gogor ugari egon da, tragikoena 1878 ko apirilaren 20 koa.

Galerna honen barri José María Pereda idazle kantauriar famatuak “Sotilezas” elebarri edo nobela ezagunean jaso eban:

“De pronto percibieron sus oídos un pavoroso rumor lejano, como si trenes gigantescos de batalla rodaran sobre ruedas abovedadas. Sintió en su cara la impresión de una ráfaga húmeda y fría, y observó que el sol se oscurecía y que sobre el mar avanzaban, por el noroeste, grandes manchas rizadas, de un verde casi negro...”

Eta aurrerago:

“Cuanto podía abarcar entonces la vista en derredor, era un espantoso resalsero de olas, que se perseguían en desatentada carrera y se azotaban con sus blancas crines sacudidas por el viento. Correr delante de aquella furia desatada, sin dejarse arrastrar de ella, era el único medio, ya que no de salvarse, de intentarlo siquiera”.

Galerna honetan 132 kantauriar eta 190 euskaldun ito ziren (85 bermeotar, 49 elantxobetar, 15 mundakar...) desastre horrek onurak ekarri ebazan nabigazioan: meteorologia parteak, salbamenduko txalupak, kubiartan aldaketak...

XIX. mende honetan beste galerna batzuk be izan ziren: 1881 eko uztailaren 26 koa (ez dakigu itotakoak zenbat izan ziren), 1892koa...

XX. mendeko galernarik bortitzena eta ezagunena 1912 ko hau izan zan, baina handik gutxira beste bat be izan zan, 1914 koa (honetan be elantxobetarrak izan ziren kaltetuak, zehaztu barik kopurua, baina San Ignacio egunean izan zala uste dogu) eta 1961 ekoa (83 gizon ito ziren, euren artean ez dago elantxobetarik).

1912 ko galernara bueltatuz, abuztuaren 12an, sortu barria zan Igeldoko Behatokiko parteak, goizean zera esan eban: “Cielos despejados, brisa del sur y mar bella”. Ordukin aurreikuspena aldatu egin zan: “Riesgo de galerna” aipatu eban parteak eta geroago: “Galerna terrible a media noche”. Garaiko meteorologi zerbitzuek gertatuko zana aurreikusitako arren, ezin arrantzan zebiltzan txalupak abisatu.

Antza danez, batzuek zeozelako abisua jaso eben, itsasontzi bretoiek seinaleak egin eutsiezen txalupetan atunetan zebiltzaneri. Gehienek bertan pasa eben gaba, holan egiten eben atuna egoanean, gainera atunaren kostera txarra izan zan eta arraina egoala aprobetxatu gura eben.

Matxixakoko Lurmuturretik 45 milia ingurura egozan atunaren arrantzan txalupak. Gehienbat beladun txalupak ziren, 13 eta 15 metro luze eta 3 metroko zabalera, bakoitzean 8 edo 9 arrantzale.

Harrapatutako atuna orduan sortu barriak ziren baporetan eroaten eben portura, txalupak bertan gelditzen ziren bitartean..

Gabean harrapatu ebazan galernak eta haregaz batera lehertu zan ziklogenesi izugarriak. Bertan txalupa ugari egozan, batzuk portura ailegatu eta ez eben arazorik eduki baina 18 txalupa ez ziren sekula portura heldu. Txalupa honeetatik 14 bermeotarrak ziren, 2 lekitxarrak, 1 ondarrutarra eta azkena, elantxobetarra, guztira 146 gizon. 143 irentsi ebazan itsasoak, 116 bermeotar, 16 lekitxar, 8 elantxobetar eta 3 ondarrutar. 3 baino ez ziren bizirik atera: 2 bermiotar eta lekitxar 1. Bataz-besteko adina 29'5 urte, alargunak 75, umezurtzak 225.

Honeek guztion omenez, eta batez be, Elantxobeko "María Luisa" txalupen itotakoen omenez, eskultoreak, Jon Renteriaren bitartez (eskerrik asko honeri bieri emondako laguntza guztiagatik) egindako eskultura eta ekitalditxo hau prestatu dogu. Hurrengo batean ipiniko dogu eskultura lekuri egokienean.

Honeek dira 1912 ko galernan itotako arrantzaleen izenak:

- Patroia: DANIEL BAQUERIZA GARRAMIOLA, elantxobetarra, 53 urte.
- Honen semeak: JUAN CRISÓSTOMO BAQUERIZA ECHEANDIA, elantxobetarra, 26 urte.
- SANTOS ANTONIO BAQUERIZA ECHEANDIA, elantxobetarra, 23 urte.
- JUAN PEDRO PALACIOS UGALDE, elantxobetarra, 51 urte.
- Honen semea: BENJAMÍN PALACIOS ABERASTURI, elantxobetarra, 13 urte.
- RAMÓN MUGUIRA IBARRA, Kortezubikoa, 49 urte
- CASTOR LANDETA GUIASOLA, Ibarrangelukoa, 35 urte.
- EUSEBIO AREGO SARASOLA, Elantxobekoa, 16 urte.

Euren omenez eta itsasoan galdutako elantxobetar guztiak gogoratu.